Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

3688

EBAZPENA, 2010eko ekainaren 22koa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, Bilbao-Donostia lineako Txarakoa-Azitain tartea bikoizteko eraikuntza-proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrera ateratzeko dena.

Garraio Azpiegituraren zuzendariaren 2009ko abenduaren 2ko Ebazpenaren bidez, Bilbao-Donostia lineako Txarakoa-Azitain tartean trenbidea bikoizteko eraikuntza-proiektua onartu zen.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren estrategiaren barruko jarduketa-lerroetako bat trenbideko garraio kolektiboa sustatzea da.

Gaur egun, trenbide-sareko geltokiak oso desberdinak dira batzuk besteengandik, ez daude ez diseinu-, ez funtzionaltasun-irizpide berari jarraituz eginda. Gainera, horri beste arazo batzuk gehitu behar zaizkio: mantentze-kostu handia, irisgarritasun-zailtasunak, nasen arteko sestra bereko pasabideak, nasa estuak, etenak eta tren-unitaterako tarte handiak.

Birmoldatu beharreko geltokien artean, Azitaingoa daukagu, Eibarren, Bilbao-Donostia trenbidean, eta pentsatu da proiektu berean Txarakoako trenbide-pasagunetik Azitaingo geraleku berrirako tartean trenbidea bikoizteko lanak sartzea, eta aldi berean, Azitainen bikoiztu behar den tarte horretan dauden oinezkoentzako bi trenbide-pasaguneak ere kentzea, eta horien ordez trenbide gaineko pasabide bat eraikitzea, eskailera eta arrapalekin, 49+565 kp-an.

Azitaingo geltoki berriak bidaiarientzako eraikin bat izan beharko du, dagokion geltoki-kategoriaren araberako instalazioak izango dituena. Harmen handiagoa izateko moduan diseinatuko da, eta mugikortasun murriztuko pertsonentzako egokituta egongo da, indarrean dagoen araudiak ezartzen duen bezala.

Erasandako lurrak eskuratu, eta ondasunak eta eskubideak behar bezala kudeatu ahal izateko, proiektuan ondasun horiek guztiak identifikatzeko zerrenda zehatz bat eta partzela-planoak datoz.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

3688

RESOLUCIÓN de 22 de junio de 2010, del Director de Infraestructura del Transporte, por la que se somete a información pública la relación de bienes y derechos afectados por el «Proyecto constructivo del desdoblamiento del tramo Txarakoa-Azitain del ferrocarril Bilbao-Donostia».

Mediante Resolución de 2 de diciembre de 2009, del Director de Infraestructura del Transporte, se aprobó el «Proyecto Constructivo del Desdoblamiento del Tramo Txarakoa-Azitain del ferrocarril Bilbao-Donostia».

Dentro de las líneas de actuación del planteamiento estratégico del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno Vasco se encuentra el potenciar el servicio de transporte colectivo ferroviario.

En la actualidad, las estaciones de la red ferroviaria son dispares y no están sujetas a un mismo criterio de diseño ni de funcionalidad. Además, hay que añadir otros problemas como el alto coste de mantenimiento, dificultades de accesibilidad, existencia de pasos a nivel entre andenes, andenes estrechos, cortes y con una separación importante a la unidad.

Entre las estaciones objeto de remodelación se encuentra la de Azitain, situada en la línea Bilbao-Donostia, en Eibar, planteándose la conveniencia de incluir en el proyecto el desdoblamiento de vía comprendido entre el paso a nivel de Txarakoa y el nuevo apeadero de Azitain, contemplándose asimismo la supresión de dos pasos a nivel peatonales situados junto al apeadero de Azitain actual, en el trayecto objeto de desdoblamiento mediante la construcción de una pasarela superior dotada de escaleras y rampas, situada en el PK 49+565.

La nueva estación de Azitain deberá estar dotada de un edificio de viajeros que albergue las instalaciones necesarias, de acuerdo con la categoría de estación correspondiente. Se diseña para una mayor capacidad y se posibilita el acceso a ella de personas con movilidad reducida, según prescribe la normativa vigente.

A efectos de obtención de los terrenos y de la gestión de los bienes y derechos afectados, el Proyecto contiene la identificación pormenorizada de los mismos mediante la relación y planos parcelarios.

Organo honek eskumena dauka Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko trenbide-azpiegituretako obrak egin ahal izateko izapideak egin eta nahitaezko desjabetze-jardunbidea ebazteko, hala ezartzen baitu Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 15.h artikuluak, maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 10.1.e artikuluari dagokionean.

Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluaren arabera, trenbide-linea berriak jartzeko edo lehendik daudenak handitu edo zabaltzeko proiektuak onartzen direnean, eta onespen horretan okupatu beharreko ondasunak zehaztuta badatoz, nahitaezko desjabetzeko eskakizunen eta jardunbidearen ondorioetarako, onespenak berekin dakar, proiektua bera eta horren gaineko aldaketak, herri-onurakotzat edo gizarte-interesekotzat jotzea, eta proiektuarekin batera doan zerrendan jasotako ondasun eta eskubideak lehenbailehen okupatu beharrekotzat aitortzea.

Nolanahi ere den, proiektuaren onespenak berekin dakarren arren erasandako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluek ezartzen dutenez, ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrera atera behar da, alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan daitezen, zerrendan okerrik badago, zuzentzeko, eta interesdunak zeintzuk diren ondo zehazteko.

Beraz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainontzekoak ikusirik, honako hau

EBATZI DUT:

Bilbao-Donostia lineako Txarakoa-Azitain tartea bikoizteko eraikuntza-proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrera ateratzea, Ebazpen hau azkena argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasi eta hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan daitezen, okerrik baldin badago zuzentzeko. Kontuan izandako arauak: Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 19.2 artikulua eta horrekin bat datozenak. Alegazioak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira Gasteizko Donostia kaleko 1ean (Lakua 1).

Aipatutako epean, erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda Eibarko udaletxeko iragarkien oholean egongo da, edonork ikusteko.

Este órgano es competente para la adopción de los actos de tramitación y resolución del procedimiento de expropiación forzosa para la realización de las obras de infraestructura ferroviaria de competencia de la Comunidad Autónoma, según lo dispuesto en el artículo 15.h del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, de Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, en relación al artículo 10.1.e del Decreto 4/2009, de 8 de mayo.

A tenor de lo dispuesto en el artículo 6.2 de la Ley 39/2003, de 17 de noviembre, del Sector Ferroviario, la aprobación de los proyectos de establecimiento de nuevas líneas o de ampliación y mejora de las existentes que contengan la determinación de los bienes que se considera preciso ocupar supone, a efectos de los requisitos y del procedimiento de expropiación forzosa, la declaración de utilidad pública o interés social del proyecto y de sus modificaciones, y la urgencia de la ocupación de los bienes y derechos afectados identificados en los mismos.

No obstante, aunque se entienda que la necesidad de ocupación de los bienes y derechos afectados se encuentra implícita en la aprobación del Proyecto, los artículos 17.2, 18 y 19.2 de la Ley de Expropiación Forzosa establecen la obligación de formular la relación descriptiva de dichos bienes y derechos y de someterla al trámite de información pública, a fin de que puedan formularse alegaciones y aportar datos en orden a la rectificación de los posibles errores de la misma y a la correcta determinación de los interesados.

Por lo cual, vistas las disposiciones citadas y demás concordantes y de general aplicación,

RESUELVO:

Someter al trámite de información pública la adjunta relación de bienes y derechos afectados por el «Proyecto Constructivo del Desdoblamiento del Tramo Txarakoa-Azitain del ferrocarril Bilbao-Donostia», al objeto de que durante el plazo de quince (15) días hábiles, contados a partir del día siguiente al de la última publicación de la presente Resolución, puedan presentarse alegaciones a los efectos de subsanar los posibles errores de la misma, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 19.2 y concordantes de la Ley de Expropiación Forzosa, dirigiéndose para ello a la Dirección de Infraestructura del Transporte, Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, calle Donostia-San Sebastián n.º 1, Vitoria-Gasteiz.

Durante el referido plazo, la relación de bienes y derechos quedará asimismo expuesta en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Eibar.

Guztiek horren berri izan dezaten jakinarazten da.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 22a.

Garraio Azpiegituraren zuzendaria,
JOSÉ ANTONIO LÓPEZ ANSAREO.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de junio de 2010.

El Director de Infraestructura del Transporte,
JOSÉ ANTONIO LÓPEZ ANSAREO.

Lurzatia *Parcela*	Jabea *Propietario*	Desjabetzapena *Expropiación* (m²)	Zortasuna *Servidumbre* (m²)	Aldi baterako okupazioa *Ocupación Temporal* (m²)	Katastroko izaera *Naturaleza Catastral*	Poligonoa *Polígono*	Lurzatia *Parcela*
001	Eibarko Udala	0	0	58	Hiri-lurra *Urbana*	D760B01	
002	Hijos de A. Gabilondo, S.L.	0	0	1103	Hiri-lurra *Urbana*	D760001	
003	Jose Antonio Uranga Erviti	350	0	6	Hiri-lurra *Urbana*	D860A02	
004	Jose Lorenzo Aranzabal Errasti y Otros	0	0	0	Hiri-lurra *Urbana*	D860003	
005	Eibarko Udala	174	9	831	Hiri-lurra *Urbana*	D860005	
006	Rosario Urkia Lasuen	77	0	36	Hiri-lurra *Urbana*	C860B22	
006-1	Comunidad de Propietarios Eguzk-Begi n.º 1	0	24	13	Hiri-lurra *Urbana*	C860B22	
007	Comunidad de Propietarios Eguzki-Begi n.º 2	65	0	45	Hiri-lurra *Urbana*	C860B23	
008	M.ª Aranzazu Echaniz San Martin	75	0	58	Hiri-lurra *Urbana*	C860B24	
009	Jose Ignacio Cenarruzabeitia Berasaluce	813	0	275	Hiri-lurra *Urbana*	C860B25	
010	Sagain Gestion, S.L.	5	0	0	Hiri-lurra *Urbana*	D860006	
011	Acitain, S.A.	157	0	0	Hiri-lurra *Urbana*	C860013	
012	Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa	357	0	659		-	-
013	Eibarko Udala	41	0	884		-	-